JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO SAILA

5944

EBAZPENA, 2008ko irailaren 18koa, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena. Honen bidez ebazten da Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos SAri buruzko hitzarmen kolektiboa (2008-2010 urteetarako) erregistratu, gordailatu eta argitaratzea (hitzarmen kodearen zenbakia: 8600172).

AURREKARIAK

Enpresarien zuzendaritzak eta bere enpresa batzordeak —langileen ordezkapenean- 2008ko irailaren 16an aurkeztu zuten, ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboari buruzko derrigorrezko dokumentazioa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Langileen Estatutuari buruzko Legeko 90.2 artikuluak (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 29ko BOEn argitaratua) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitekoen eta organoen egitura ezartzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko (2005-10-27ko EHAA) 17.f) artikuluak xedatutakoaren arabera, eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuak (1981-04-02ko EHAA) eta maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuak (1981-06-06ko EBO) -hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- xedatutakoaren ildotik.

Bigarrena.– Sinatutako hitzarmen kolektiboak Langileen Estatutuari buruzko Legearen 85, 88, 89 eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu

Honen ondorioz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hitzarmena Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan inskribatu eta gordailatzeko agintzea, eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 18a.

Lan eta Gizarte Segurantza zuzendaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

Ale Gehigarri bereizian argitaratzen da aipaturiko hitzarmena

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

5944

RESOLUCIÓN de 18 de septiembre de 2008, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo de Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A., para los años 2008-2010 (código de convenio n 8600172).

ANTECEDENTES

El día 16 de septiembre de 2008 se ha presentado en esta Dirección, la documentación preceptiva referida al convenio antes citado, por la Dirección de la Empresa y el Comité de Empresa, en representación de las y los trabajadores.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– La competencia prevista en el artículo 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (BOE de 29-03-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el artículo 17.f) del Decreto 315/2005, de 18 de octubre (BOPV de 27-10-2005) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (BOPV de 02-04-1981) y con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo (BOE de 06-06-1981) sobre registro de convenios colectivos.

Segundo.– El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, con notificación a las partes.

Segundo.– Disponer su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2008.

El Director de Trabajo y Seguridad Social,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

En Suplemento aparte se publica el convenio que se cita